

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2021-11-09

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Barrena kaleko bizilagun batek kexa adierazi du txakur-kaka pila bat dagoelako kalean eta eskatu du isuna jartzeko edo kamerak jartzeko jabeak kontrolatu ahal izateko.	Ikusten denean txakur baten jabeak ez duela bere animalia-aren kaka jasotzen, bidezkoa den salaketa egiten da. Azken hilabeteotan, zaintza-kanpaina espezifikoak egiten ari dira halako intzidentziak saihesteko herriko hainbat puntutan. Gaur egun, animaliak eduki eta babesteko ordenantza aldatzeko aukera aztertzen ari da, eta neurriak hartu nahi dira txakurren jabeek horrelako arau-hausteak murrizteko.
Zerbitzuak	Barrena kaleko bizilagun batek eskatu du eskola inguruan eta Iparragirre kalean sasiak garbitu ondoren pilatzen den belarra batzeko.	Lan hori azpikontrata batek egiten du. Inausketaren hondarrak Barrenaren zenbaki bikoitien atzealdetik ez ateratzea erabaki zen, zaila zelako eta eskuz atera behar zirelako.
Alkatetza	Bizilagun batek eskatu du zarataren aurkako pantailak jartzeko autopistan.	Alkateak hainbat idatzi igorri dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako diputatu andreari, eta erantzun du ez direla beharrezkoak. Gainera, alkateak zati batzuetan abiadura jaisteko aukera planteatu du, igarotzen diren ibilgailuek hainbesteko zaratarik ez eragiteko, eta eskaera hori ere ez da beharrezkotzat jo.
Obrak / Hirigintza	Barrena kaleko 36 zenbakiko bizilagun batek eskatu du hobetu daitezela atarira iristeko sarbideak. Dioenez, sarbideko aldapak oso pendiz handia dauka.	Barrena 34 eraikitzen denean konponduko da arazoa.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2021-11-09

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du txukundu eta garbitu daitezela Barrena kaleko 44 eta 48 zenbakien artean dauden parkeak, eta kexa adierazi du lurzorua egoera txarrean dagoelako. Eskatu du parkeak hobetu daitezela.	Lurzorua konpondu da egoera txarrean zeuden tokietan. Garbiketari dagokionez, parkea eta inguruak astelehenetik ostiralera eskobatzen dira. Desugertzeko garbiketa urtero egiten da. Bestetik, parkeko arkupe ingurua astean behin egiten da espaloiak garbitzekoarekin.
Obrak	Bizilagun batek salatu du Barrena kaleko 42 eta 44 zenbakietan bizi direnek egun duten sarbideko espaloia obrakoa dela eta irristakorra dela.	Aurreikusita dago urte honetarako edo datorren urterako lurzoru hau berritzea.
Zerbitzuak	Urkizuko bizilagun batek salatu du auzoan zaborrekin duten arazoa. Adierazi du auzoa zikina dagoela, pertsona askok zabor-poltsak edukiontzietatik kanpo lagatzen dituztelako.	Mankomunitateak pertsona bat du 365 egunetan puntuetatik zabor-poltsak jasotzen pasatzen dena. Zehapen-espedienteak irekitzen ari dira, Udaltzaingoaren lankidetzarekin poltsak zabaldu eta haiek botatzen dituzten pertsonak identifikatu ondoren.
Obrak	Bizilagun bat kexu da Urkizuko parkeko zorua labainkorra delako eta salatu du gune batzuetan zuloak daudela.	2022ko otsailean aldatu zen kaltetutako gunearen zorua, eta asfalto urtu irristagaitza jarri zen.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du jar daitezela berriz Urkizu dorreetako 9 zenbakiko zokaloak.	Lan-agindu bat egin da pasabide publikoetako zokaloak konpontzeko. Nolanahi ere, fatxadetako eta zutabeetako zokaloak eraikuntzen jabetzaren ardura dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2021-11-09

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Laboral Kutxa parean dauden jardinak inguratzen dituzten petrilak konpontzeko. Dioenez, apurtuta daude eta puntan dute akabera, eta hori arriskutsua da oinezkoentzat.	Udal Lantaldeko igeltseroek 2022ko ekainean konpondu zuten itxitura hura.
Zerbitzuak	Herritar batek eskatu du argiteria jartzeko berriz ere Azitain eta Maltzaga arteko bidegorriko guneetako batean.	Kontu hori Diputazioari dagokio eta 2022 urteko amaiera eta 2023 urteko hasiera bitartean jarriko dituela jakinarazi du.
Zerbitzuak	Barrena kaleko herritar batek kexa adierazi du Murrategi ingurua zikin dagoelako.	Gune hori makinaz garbitzen da astelehenetan eta ostegunetan. Mankomunitateak uste du maiztasun horrekin nahikoa dela egiten den garbiketa.
Obrak	Herritar batek eskatu du herriko ekialdeko espaloien zabalera handitzeko.	Barrena kaleko 42 eta 48 zenbakien arteko espaloien tartean lanak egingo dira.
Zerbitzuak	Bizilagun batek kexa adierazi du auzoan dagoen zikinkeriatatik eta eskatu du auzo-bileretara Debabarreneko Mankomunitateko ordezkariak ere joateko.	Auzoko lehen bileraren ondoren, hurrengo guztietan egon ziren Mankomunitateko ordezkariak.
Obrak / Hirigintza	Herritar batek galdetu du ea eperik zabalduko den proposamenak aurkezteko Estaziño eta Azitain arteko tren-estalduraren proiektuaren inguruan, eta eskatu du egitasmoa zehatz-mehatz aurkezteko.	Proiektua eta egindako hobekuntzak Udalaren eta jarduketaren xede den trenbidetik gertuen dauden etxebizitzetako bizilagunen artean egindako bileretan aurkeztu dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2021-11-09

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Barakaldo kaleko bizilagun batek eskatu du Elektrociclos-eko etxebizitzak trenbidetik bereizten dituen hesian hazi den sasitza kentzeko. Dioenez, arratoiak daude.	Euskal Trenbide Sareari eskatu zaio sastrakak garbitzeko, ez delako udal-lursail bat. Hala ere, hesitik irteten ziren sasiak joan den ekainean garbitu ziren. Arratoiei dagokienez, abisua eman zitzaion desratizazioaren arduradunari, arazoa konpontzeko neurriak har zitzan.
Alkatetza	Herritar batek galdetu du ea zenbat egitasmo estrategiko egin behar diren Eibarko ekialdean.	Ekialdeko gunerako hainbat jarduera lantzen ari gara. Alde batetik, Hijos de Gabilondo enpresa erosi ondoren, arkitekto-talde bat kontratatu da espazio horretan erabilera berriak garatzeko eta espazioari urbanizazio berri bat emateko. Gainera, Estaziño eta Azitain arteko trenbidea estaltzeko lanean ari gara, pasealeku bat sortzeko, bai eta Murrategi eta Barrena kalea biziberritzeko lanetan ere. Azken horretarako, lehen urratsa egingo dugu laster, Barrena 34an dagoen erabiltzen ez den industria-eraikina erosita, Eusko Jaurilaritzak etxebizitza babestuak eraiki ditzan.
Alkatetza	Herritar batek galdetu du zer aurreikuspen duen Udalak Europako Funtsetako dirulaguntzei dagokienez.	Udala Europako Funtsen deialdi guztietara aurkeztzen da, herrirako estrategikotzat jotzen diren proiektuetako asko finantzatzeko. Horren adibide dira Estaziño eta Azitain arteko trenbidea estaltzeko lanak, Ubitxa eta San Kristobal arteko igogailua eta Andretxe berria.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2021-11-09

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Herritar batek galdetu du ea Udalak jarraitu behar duen maskarak saltzen makinetan.	Udalak doan eskaini zuen material hau deseskalatze-fasean, 2020ko konfinamenduaren ostean, maskara gutxi zegoelako eta, gainera, espazio askotan nahitaezkoak zirelako. Hala ere, orain nahitaezkoak ez direnez zentro medikuetan eta garraio publikoan izan ezik, ez da beharrezkotzat jotzen makina hauek jartzea.
Zerbitzuak	Barrena kaleko bizilagun batek kexa azaldu du 7 eta 9 zenbakietako argiztapena urria delako.	2022ko martxoan, inguru horretako argiteria publiko osoa berrikusi zen, eta argi guztiak behar bezala laga ziren.
Obrak	Herritar batek salatu du trenaren zarata oso handia dela Barrena kaleko 7 eta 9 zenbakien ostean eta Eguzki-Begin.	Kexa Euskal Trenbide Sareari helarazi zitzaion, eta zaratari buruzko azterlan bat egiten ari gara Estaziño eta Azitain arteko tartean.
Alkatetza	Herritar batek galdetu du ea noiz ezagutu ahalko diren herriaren ekialdeko gunerako aurreikusitako hobekuntzak.	Herritarrei informazio puntuala ematen zaie gertatzen diren aurrerapen bakoitzaren inguruan.
Obrak	Herritar batek eskatu du bidegorri bat sortzea kalean bertan Barrena inguruan, auzoaren berroneratzea ahalbidetzeko. Adierazi du trenbide gaineko bidegorriak isolatu egingo duela auzoa, eta, gainera, obrek inpaktua izango dutela ingurumenean eta akustikan.	Trenbide gaineko bidegorriak ekialdearen eta erdigunearen arteko lotura sendotuko du.
Zerbitzuak	Kexua adierazi du Asua Erreka kalea zaborrez beteta dagoelako.	Mankomunitateak asteko egun guztietan jasotzen du zaborra, larunbatetan izan ezik.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2021-11-09

Saila	Laburpena	
Obrak	Bizilagun batek eskatu du espaloiak egiteko Asua Erreka inguruan, natura ingurunera segurtasunez joateko.	Kalea oso estua da eta ez dago aukerarik aparkalekuak eta espaloiak egiteko. Hortaz, espaloiak eraiki nahi izanez gero, aparkalekuak kendu beharko lirateke. Udaltzaingoarekin aztertuko da horren premia.
Zerbitzuak	Bizilagun batek salatu du pertsona askok zaborra eta obra-hondakinak botatzen dituztela Asua Errekara.	Abisua pasatu zitzaien Mankomunitateari eta erantzun dute Mankomunitateak berak ere arazoak dituena obra-hondakinak erretiratzeko, zeren ekipo bereziekin joan behar baitira haraino.
Zerbitzuak	Herritar bat kexu da argiztapena falta delako Asua Errekako tunelaren inguruan.	2022ko martxoan, inguru horretako argiteria publiko osoa berrikusi zen, eta argi guztiak behar bezala laga ziren.
Alkatetza	Herritar batek galdetu du ea zer epe aztertzen ari den Udala ekialdea berraktibatzeke ekintzak aurrera eramateko.	Cada proyecto tiene sus plazos, por lo que iremos conociendo los plazos conforme se vayan iniciando. En lo que respecta al proyecto de cobertura de las vías del tren entre Estaziño y Azitain, el plazo de ejecución es de 30 meses.
Obrak	Auzokide batek galdetu du ea Euskal Trenbide Sareari eskatu zaion testatu eta ebaluatutako proiektu bat egitea, Estaziño eta Azitain artean trenbidea estaltzeko proiektuaren mantentze-lanen xehetasunak ere jasoko dituen.	

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2021-11-09

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Urkizuko auzokide batek eskatu du prozesu parte-hartzaile bat egiteko trenbidea estaltzeko proiektuari buruzkoa.	Proiektua behar bezala azaldu zaie eremutik hurbilen bizi diren auzotarrentzako egin diren deialdietara joan diren herritar guztiei. Ildo horretatik, adierazi behar da bizilagunek helarazitako hobekuntza-eskaeretako batzuk, etxebizitzaren eta pasealekuaren arteko distantzietan eta irisgarritasun-hobekuntzetan buruzkoak, kontuan hartu eta proiektuan txertatu direla, egitasmoa nabarmen hobetuz.
Obrak	Txontako auzokide batek galdetu du ea nola geratu behar den Txontako gune industrialak.	
Zerbitzuak	Barakaldo kaleko bizilagun batek salatu du kale horretan dagoen altzari-biltegiko jabeak altzari pila bat lagatzen dituela espaloian astelehenero.	Mankomunitateak, haren Ingurumen teknikariaren bidez, informazioa igorri dio biltegi horri esanez Garbigunera eraman ditzakeela altzariak.
Hirigintza	Kexa adierazi du aparkaleku plazak nabarmen gutxitu direlako, COVID terrazak jartzearen ondorioz.	COVIDaren ondoren, zirkunstantzia zehatz batzuk betetzen dituzten terrazak bakarrik eman zaie baimena aparkaleku-plazak okupatzeko.
Hirigintza	Eskatu du zerbait egin dadila Bittor Sarasketa epaitegi zaharraren eraikinean aspaldi jarri zen aldarmioan. Dioenez, eraikina jausten ari da.	Epaitegi zaharrean birgaitze-obrak egiten ari dira.
Hirigintza	Auzokide batek galdetu du ea noiz bota behar diren Arraguetako etxebizitzak.	Eraispena laster egingo dela aurreikusten da: jabeek Eraispenez lizentzia dute, baina obra hasteko beste baimen batzuk behar dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2021-11-09

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Barakaldo kaleko auzokide batek kexa adierazi du auzoko edukiontziak baldintza txarretan daudelako.	Mankomunitateak aztertu eta berrikusi du ingurua: tapa apurtuak konpondu eta edukiontziak garbitu ditu.
Zerbitzuak	Argi gehiago eskatu dute Barakaldo inguruan.	2022ko martxoan, inguru horretako argiteria publiko osoa berrikusi zen, eta argi guztiak behar bezala laga ziren.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du sarriagotan garbitzeko Barakaldo kaleko garajeetarako jaitsieran.	Gune pribatu bat da, eta, hortaz, garbiketa ez dagokio Mankomunitateari. Nolanahi ere, garbitu egiten da langileak zikin dagoela ikusten duenean.
Alkatetza	Herritar batek galdetu du ea non hasten den herriaren ekialdeko gunea.	Ekialde ingurua non hasten den esateko toki zehatzik ez badago ere, Ibarkurutzeko iturria izan daiteke.
Obrak	Eguzki Begiko auzokide batek galdetu du ea aurrera jarraitzen duten beren etxebizitzaren irisgarritasuna hobetuko duen igogailu bat eraikitzeko planak.	Bai, igogailu bat eraikitzea aurreikusten da, etxebizitzetarako irisgarritasuna hobetzeko.
Obrak	Auzokide batek galdetu du ea zer erlazio dagoen trenaren estalduraren eta segurtasuna areagotzearen artean, bai eta zer koherentzia ematen dion obra honek inguruari, eta zergatik eragiten duen trenaren abiadura handitzean.	Euskal Trenbide Sareak, proiektua gauzatzeaz arduratzen den organoak, helarazi ditu datu horiek. Hala eta guztiz ere, Udalean ETSko teknikariekin izandako bileretan behar bezala erantzun zaie gai horiei.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2021-11-09

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzokide batek galdetu du ea zeinek garbitu behar duen Azitaingo eliza ingurua.	Gune pribatu bat denez, ez dagokio Mankomunitateari garbiketa-lana egitea. Gainerakoan makina pasatzen da astelehen eta ostegunetan.
Hirigintza	Elektrociclos-eko bizilagun batek kexa adierazi du trenbidea estaltzeak argia kenduko dielako beheko etxebizitzei.	Bilerak egin dira eragindako bizilagunekin afekzioa azaltzeko.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du trenaren geralekuaren ondoan dagoen parkea mantentzeko lanak egiteko, heskaiak garbitzeko eta baranda gehiago jartzeko.	2022ko martxoan mantentze-lanak egin ziren eta sastrakak garbitu. Barandei dagokienez, bide publikoko barandak aipatzen baditu, ez da beharrezkoa ikusten baranda gehiago jartzen; tren-geralekuko barandei buruz ari bada, ez litzateke udal-eskumena izango, Euskotrenena baizik.
Hirigintza	Auzokide batek galdetu du ea noiz aurkeztu behar zaien auzokoei Txontako Babes Ofizialeko 200 etxebizitzien eraikuntza-proiektua.	Udalak talde tekniko bat kontratatzeko prozesua hasi du, Plan Orokorren Aldaketa Puntuala idazteko, zeina jendaurrean jarriko den.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2021-11-09

Saila	Laburpena
Alkatetza	Herritar batek galdetu du ea 2022ko Aurrekontuetan sartu behar den partida ekonomiko bat Txontan Lokal Soziokulturala egiteko. Ez da sartu. Dena den, mahai gainean dugun proiektua da eta badira alternatiba batzuk aztertzen ari garenak, zehazteko noiz eta non egin daitezkeen.
Obrak	Informazioa eskatu du jakiteko ea espaloia handituko den Txontako erdialdean.